

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2000ko urtarrilaren 13a • 182. zka.

2000

2000. urtea martxan

Iturririk iturri: Mikel Bengoa • Iritzia: Lore Martinez • Kirola: Valentin Zurbano

Kalitateak mugarik ez.




ARGI-PLASTIK

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE

UDAL EUSKALTEGIAK

ZURE ETORKIZUNA EUSKARAZ

Zorionak eta urte berri on



2000-2001 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

Euskalduntze,
alfabetatze maila guztiak,
EGA.

Mintzamina lantzeko talde bereziak.
Sakontze ikastaroak.

Erritmoak

Eskarien arabera, erritmo desberdinak
eskain daitezke. Galde ezazu!

Bulego ordutegia

Goizez 09:00-13:00 • Arratsaldez 15:00-19:00

Matrikulatzeko epea

Irailaren 1etik 22ra.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu
16 urtetik gorakoentzat.


LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

ARETXABALETA
Nafarroa, 2-4
Tel.: 943 79 21 68

ESKORIATZA
Fernando enparantza
Tel.: 943 79 21 68



Asmo berririk baduzu 2000. urterako?



Javier Valle

Lehen bezala lanean jarraitu behar, ez daukat beste asmorik.

Etxe ingurua obretan daukat eta gaur bertan garajea bota dute, beraz berria egin beharko didate. Besterik ez.



Ana Fernandez

Bi hilabeteko alaba daukat eta ondo zaintzea izango da nire helburua 2000. urtean.



Unai Calleja

1999a bezalako izatea, besterik ez. Lanean berdin jarraitzea, ez daukat beste proiekturik.



Aurora Errasti

Ez daukat proiektu berririk, lanean jarraitu eta datorren gutzia ona izan dadila.

ESKUTITZA

URTE BARRI,
DANAK EKARRI

Olentzerok ekarri dau zeozer? Hau da sasoi honeitten askok eitten douen galderie, olentzerok beti ekarten dauelako zertxobait; dala iketza (hau batzundeko ondo portetan ikesi daixien, eta ondio be biherrezkue), dala dirue (hau etxe aberatsetan), dala jostailue, dala Barbye (gaintzeko muñekak itxuraz ez dauielako "neurrixek" beteten) beti zeozer.

Umie nintzenien behin baino gehixautan idatzi nutsen olentzerori, bana inoiz ez eustan eskatuteko dana ekarten, eskabidie sakue baino haundixaeu izengo zan akaso. Oin, barrez, bat eskuta eta ha be ez dau ekarten.

Euskal gizartiei ekarri lekixon erregaluri onena zera izengo litzake: gabonetan faltan izengo dien afaltiar zein bazkaltiarrek euren jesarleketara ekartie. Hau da eskaketan dan erregalu bakarria, nik neuk bakarrik eskaketan ez dotena.

Aurtenguen eskatuteko dana ekarriko ete dau Olentzerok? Ostantzien, dana bizardunek ekarri ezin baleike, sartuko garen

urte barrixek ekarri daigule. Horrenbeste burundara ataraten dabilen 2000. horrek ekarri daixela, ez daixela izen bakarrik hainbat "efektue" sortzeko. Igerri daigule "efektue" kartzelen leherketa bateaz eta ez ordenadorien burukominekin edo urte barri eguneko bixamonaz.

Hortaz, akabetako, urte barri, danak ekarri: EUSKAL PRESOAK ETXERA orain! Danoi urte barri on eta laztan bat laztandu ezin neikienei.

Irati Pagoaga

ERAIKI DAIGUN
GAZTETXEA

Proiektu berri baterako ideiak behar ditugu. Ze aktibitate gustatuko litzaizuke antolatzea? Dantza, antzerkia, hitzaldiak, ikastaroak... Ze musika talde ekarri nahi zenuke gure herrira? Rock, tecno, bertako taldeak... Hau gutxi bada, ze ekiparekin hornituko zenuke gure gaztetxea? Interneta, ikastaroak egiteko tailerrak, jokuak... Irteerak antolatzea gustatuko litzaizuke? Nora? Mendira, musika jaialdietara, museoetara...

Bestalde gazteon kezkek jorrra nahi genituzke: etxebizitza,

langabezia, droga, sexua, lan mundua, egoera politikoa... Zuk ere ideia interesgarri asko dituzulakoan gaude. Horretarako astebukaerako irteera bat antolatu du Atxabal-tako Gazte Asanbaldak. Adii! kartelak jarriko ditugu kalean. Irteera honen helburua gazte guztiak kontuan hartzen dituen gaztetxea eraikitzea da. Lokalean obrak egin behar dira eta horretarako zure iritzia sekula baino garrantzitsuagoa da, honen arabera izango baita gaztetxearen etorkizuneko funtzionamendua. Azken finean, zelakoa da atxabal-tarrok nahi dugun gaztetxea?

Ez ahaztu urtarrilaren 29 eta 30eko irteerarekin, eta bide batez jakizue datorren asteartean arratsaldeko zazpi eta erdietan, ohi bezala gaztetxean bilera izango dela. Gaztetxea denontzako zabalik dago. ANIMATU ZAITEZ ETA HARTU PARTE!

Atxabal-tako Gazte Asanblada

182 zenbakia
2000ko urtarrilaren 13a.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es
Internet: www.saretxo.es/jaretxagazeta
Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Erredakzio-kontseilua:
Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia.

Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:

Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.

Kolaboratzaileak:

Mikel Arroabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia.

Banatzalea:

Aitor Urrutia.

Inprimategia:

Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila


Gabonak errepasatuz

Urtarrilaren 7an, lanean hastearekin batera gabonetako kontu guztiak bapatean ahazten dira. Urtarrileko aldaparen eragina omen da. Hala eta guztiz, ez dago gaizki pasatakoa gogora ekartzeari, ondo pasatu bada batez ere.

Urtero legez, hainbat ekintza izan dira gabonetan, batez ere umeentzat. Olentzero, Poxpolin Parkeko jokuak,

Bizar Zuri, Errege Kabalgata... Gazteentzat antolatutako ekintzek, berriz, ez zuten arrakastarik izan.

Gabonak baino aste bete lehenago, abenduaren 18an, ez ohiko osoko bilkura izan zen. Aretxabaletako Udalak, Udalbiltzari bere atxikimendua adieraztea onartu zen. Honen ostean, Galartzako dorretxearen inauguraketa. Denak ekarriko ditugu gogora.



Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
 Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
 Bertako okina

Mobiliario
ARENAZA

. ALTZARIAK
 . DISEINUA
 . APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
 ARETXABALETA

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1, • Tel: 943 79 71 69
 20550 ARETXABALETA



■ Gabon eguna argitzeaz bat umeen kantuak izan ziren kaleetan



■ Poxpolin Parkean aukera guztietako jolasak izan zituzten umeek



■ Urteko azkenengo egunean euskal presoak izan genituen gogoan



■ Arenaza Altzariak suertatu zen eskaparate lehiaketako irabazle



■ Erregeei ere beren eskariak luzatu zizkieten herriko haurrek

San Migel erretegia

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71

Marti

Mitarte, 16
Tfnoa: 943 79 01 72

Bere bezeroen zerbitzura

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 77 13 57

DOIKALSE
Basabe Poligonoa C-1-1

Elektroerosio lanak

Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44



Edukiontzia berri hau etxeko ontzikiak biltzeko da, bai plastikozkoak, ur, freskagarri, olio, garbigarri, leungarri, gel, txanpu... botilak, bai brik ontziak esne, ardo, zuku... eta bai, ontzi metalikoak, kontserba ontziak...

Berdea, urdina eta orain edukiontzia larua

Deba Garaiko Mankomunitateak, hirugarren edukiontzia, laru kolorekoa, jarri du kaleetan. Denok jakin bezala, urdina, papera eta kartoiarentzat da eta berdea beirarentzat. Edukiontzia berri hau, etxeko ontzikiak biltzeko da, bai plastikozkoak, ur, freskagarri, olio, garbigarri, leungarri, gel, txanpu... botilak, bai brik ontziak, esne, ardo, zuku... eta bai ontzi metalikoak, edari edo kontserba ontziak... Hauek, hiri hondakinen pisu osoaren %7,3 osatzen dute. Deba Garaiko Mankomunitatean guztira 127 jarri dira, horie-

tatik 12 Aretxabaletan. Ahal izan den kasu guztietan, edukiontzia berde eta urdinen ondoan jarri dira, 500 biztanleko edukiontzia bat. Ea hirugarren honek ere, beste biek izan duten arrakasta lortzen duen.

Bereizita bildutako ontzikiak, Legazpiko Banaketa eta Saillkapen Plantara eramango dira, eta han mota bakoitzeko taldeari dagokion bidea emango zaio birziklatzeko. Planteamendu honen guztiaren arrakasta edo porrota erabiltzaileen partehartze aktibo eta etengabearen araberakoa izango da.

Gaur egun kilo bat sortzen da biztanle eta eguneko eta zabor edo hondakin gutxiago sortzera jo behar dugu, norberaren etxean banatuz birziklagarri diren hondakinak. Ingurugiroarentzat mesede nabaria izango da zabor-tegiak gutxiago betetzea.

Aholku eta gomendioak

Ez sartu edukiontzian ontziak barruan direla poltsa itxita (nahiz eta plastikozko poltsak ere bota ahal izan). Tolestu brik-ak, leku gutxiago hartzen baitute. Ontziak hutsik bota, hondarririk gabe. Botilei estali edo tapoiak kendu.

■ **EZ OHIKO OSOKO BILKURA ASTELEHENEAN**
Astelehen honetan, hilak 17, ez ohiko osoko bilkura egingo da. Bertan, gai bakkarra izango dute aztergai, udaleko lanpostuen zerrenda hain zuzen. Urtero egin ohi den onarpena da hau, zenbat lanpostu eta zein egoeratan dauden aztertu eta onartzea. 2000. urteko aurrekontuak, berriz, ezer berririk ez badago behintzat, urtarrilaren 31an egingo den ohiko osoko bilkuran onartzea espero da.

■ **URKULUKO BIDEA KONPONTZEAR** 1999 urtea bukatu baino lehen konpondu nahi bazen ere Urkulu urtegiko bidea, azkenean atzeratu egin dira lanak. 2000. urtea hasi bezain laster egin nahi da eta aste honetan edo hurrengoan hasiko direla konponketa lanak ziurtatu dute udaleko hirigintza sailean.

■ **GAZTETXEA KONPONDU BEHARREAN** Udalean oraindik proiekturik aurkeztu ez bada ere, Gaztetxea konpondu beharrean aurkitzen da. Komunak egoera eskasean daude eta instalazio elektrikoak ere konpondu beharra du. Zerbaitetan hasi aurretik ordea, Udalean, Gazte Asanbladako enbriatzaile jaso nahi da, Gaztetxean egin nahi dutenaren proiektua aurkezteko aukera izanik.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABAETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tfnoa: 943 71 24 11
ARETXABAETA



OLATZ ROMEO ARETXAGAZETAKO LEHIAKETAKO IRABAZLEA

Aretxagazetak, 1999ko urteko azkenengo alerako antolatu zuen lehiaketak, ez zuen arrakasta handirik izan. Herriaren inguruko hamabost galderaz osatutako lehiaketa honek, ez dakigu zailak ziren galderok edo gazteak nagituta dauden baina zapzi parte-hartzaile bakarrik izan zituen. Zozketa egin ostean, Olatz Romeo eta Asier Martinez de Agirre suertatu ziren txapeldunak. Lehenengoari, Euskadi-Nigeria futbol partidurako sarrerak tokatu zitzaizkion eta bigarrenari, euskal musikako CD bat eta berak "Negu Gorriak" taldearena aukeratu zuen.

Olatz, aitarekin joan zen Euskadiko taldea jokatzeko ikustera. Gaztetxoa izan arren asko gustatzen zaio futbola eta UDAko partidu gehientsuenak ikustera ere joaten omen da. Bere esanetan, oso giro polita egon zen San Mamesen eta asko gozatu zuen.



Urtarrilaren 22 eta 23an produktuen salmenta egingo da

Bidezko Merkataritzaren inguruko ekintzak herrian

Aretxabaleako Parrokiako Sendotzako Gazteek osatzen duten Misio Taldeak eta Hiruatxek, datorren asterako hainbat ekintza antolatu dituzte, bidezko merkataritzaren inguruan.

Gaur egungo gure gizartearen gaitz ekonomiko eta sozialak, prekarietate laborala, esplotazioa, ezberdintasun sozio-ekonomikoak... mundu mailara hedatuz gero, arazo hauek areagotu egiten direla ikusten dugu: haur esplotazioa, giza-duintasunaren zapalketa, soldata miserableak... Hau guztia salatu eta alternatiba bat aurkezteko jaio zen Bidezko Merkataritza.

"Merkataritza, ez laguntza" lemapean, Bidezko Merkataritzak erlazio ekonomiko eta komertzial justuen sustaketan datza, hegoaldeko

herrialde txiroen, enpresa eta elkardeen arteko koordinaketa sakona eta bidezkoa bilatuz.

Europa mailan, 3000 denda baino gehiago daude jandak. Horrela aipatuz ez dirudi gehiegi denik, baina kontuan izan behar da iniziatiba honek daramatzen urte kopuru eskasa. Euskal Herrian, 20 denda inguru aurkitu ditzakegu, horietako bat Arrasateko Eroskin.

Honen zergatia eta antolamendua aztertu nahian, Ibon Narbaizak, Gipuzkoako Karitaseko kideak, hitzaldia eman du hilaren 18an udaletxe zaharreko aretoan. Honez gain, hurrengo astebukaeran, urtarrilak 22 eta 23, sentsibilizazio kanpaina eta produktuen salmenta egingo da udaletxe zaharreko atarteetan.

Inoiz ez dugu

jakingo zenbat

lagundu digun

aurrerapen

honek.



IBARRA ESTANKOA



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

"ARINSA"

Aretxabaleako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"

Tfnoa: 943 79 62 80/Faxa: 943 79 76 19

DATORREN MILURTEKO IKASTOLA

ALMEN IKASTOLA • ARRASATEKO IKASATOLA • LEHENHITZ HAUR HEZKUNTZA



ARIZMENDIKO BULEGOAN INFORMATU ZAITEZ.




Arizmendi

Larrin Plaza, 1

Tel: 943 79 31 32

20500 ARETXABAleta

Bederatzi egunerako etorri da Edinburgotik eta minutu bat ere ez du libre izan, familia bisitatu, lagunekin egon, gurekin hitzegin... tartean insumiso izateagatik epaiketa ere jarri diote. Ez du Eskozian geratzeko asmorik baina momentuz han jarraituko du.



Mikel Bengoa

Eskoziara ingelesa ikastera

■ Zergatik joan zinen?

■ Batetik, aspertuta nengoen hemen eta bestetik, nire gustoko lanpostua eskuratzeko ingelesa jakitea eskatzen zidaten eta nik beti frantsesa ikasi dudanez ez nuen inolako aukerarik. Beraz, arrazoi nagusia ingelesa ikastea izan zen.

■ Eskoziako zein aldetan zaude?

■ Iaz otsailaren erdi aldera joan nintzen eta lehenengo sei hilabeteak Eskozia erdi aldeko herri txiki batean pasatu nituen, Balqhuidder-en. Irailetik, berriz, Edinburgo nago.

■ Zer egiten duzu han?

■ Orain, Edinburgon, ingelesa ikasten pasatzen ditut egunak, astean hamalau bat ordu. Aste bukaeretan, berriz, jatetxe batean egiten dut lan.

■ Balqhuidder-en egon zinenean, ordea, beste lan batzuk

egiten zenituen?

■ Orduan ez nuen lanik egiten, bueno, ez lan konkreturik. Herri honetan bizi den Bilboko gizon bat ezagutzen nuen eta berak niri ingelesez erakutsi eta nik hari euskaraz erakusteko asmoz joan nintzen. Gizon hau, baserri batean bizi da eta hippy samarra da. Margotu eta idazteaz gain ardiak ditu eta nik denean laguntzen nion, batzuetan artzain, eguraldi txarra egitean margotzen... Gizon honen emazteak, bestalde, gaelikoz hitzegindako marrazki bizidunen produktora bat du eta honentzat ere lan egiten nuen.

■ Hango bizitzeko era oso ezberdina da?

■ Bai, guztiz ezberdina. Negan, egunak, oso argi ordu gutxi ditu. Udan, berriz, alderantziz, San Juan egunean esaterako gaua ordu betekoa bakarrik da. Honek asko bal-

dintzatzen du. Eskoziarrak, gainera, oso nagiak dira. Nahi izanez gero lanpostuak barra-barra daude baina gobernu britainiarrak diru laguntza haundiak ematen dizkie eta jendea ezer egin gabe bizi da.

■ Zer botatzen duzu gehien faltan?

■ Familia eta lagun onekin egoteaz gain, ondo jatea. Oso gaizki elikatzen dira, prestatutako janariz eta "janari azkarrak"z bakarrik. Amak, noizbehinka, babak eta garbantzuak bidaltzen dizkit eta segituan desagertzen dira. Haragi asko jaten da eta eurek ona dela diote baina behi etxaldeak ezagutu nituen eta nik, badaezpada, ez dut jaten. Arraina, berriz, oso ona daukate nahiz eta eurei ez gustatu.

■ Euskal Herrira bueltatzeko gogorik ez al duzu?

■ Bai, baina zerbait daukadan. Irailean master bat egiten hasi nahi dut Eskozian, horretarako, ordea, martxoan, ingelesari dagokion froga bat gainditu behar dut. Masterra egin ostean seguru asko bueltatu egingo naiz, hura ez baita nire tokia, baina hemen lantegi batean hiru errelebutan lan egitea ere ez dut gogoko.

■ Euskal Herriaren antza omen du Eskoziak, eta jendeak badugu antzik?

■ Paisaia aldetik antzekoak izan daitezke baina dimentsioak oso ezberdinak dira. Euskaldunak eta eskoziarrak, berriz, oso ezberdinak gara. Euren hizkuntza, esaterako, gaelikoa da baina ez diote batere garrantzirik ematen, irletan eta hiru lau lekutan besterik ez da hitzegtzen. Futbol selekzioa eta errugbi taldea animatzeko orduan eskoziarrak dira baina bestela britainiarrak.

Aberri Eguna 2000/04/23

Aretxabaleta -Euskal Herria-

Azken urteotan ospatu izan den Aberri Eguna, ez da niretzat benetako Aberri Eguna. Abertzaleak batuko gaituen jaia izan beharrean, abertzaleok banatzen gaituen jaia da. "Botoa nori, Aberri Eguna harekin" bezala ospatzen den jaia. "Aberri Eguna" beharrean "Alderdien Eguna" bilakatu den jaia.

Lehenengo Aberri Eguna, 1932ko martxoaren 27an ospatu zen Bilbon. Milaka eta milaka abertzale elkartu ziren, eskuetan ikurriñak zaramatzaten umeez, mendigoizaleek, arrantzaleek, emakumeek...


Bilbon bizi izan zen euskal giroa izugarria izan zela esaten dute, ahaztezi-na. Eta Bilbok "Aberri-loretegia" zirudien bitartean, sei herrialdeetako mendi tontor askotan (Kurtzebarri, Udalaiz eta Aitzorrotz euren artean) sua egin zen egun haundi hau ospatzeko.

Eta 2000. urteko Aberri Eguna? Nik ez dut sekula benetako Aberri Egunik bizi izan, baina gauza bat argi daukat: ideologi ezberdinetako abertzale guztiok batera ospatu beharko genukeela, alderdikeriak alde batera utzita, ezberdintzen gaituzten ideiak atzean utzi eta amankomunean ditugunekin, herri-tar eta abertzale moduan. Eta zergatik ez atxabaltarrok Atxabaltan? Polita litzateke, atxabaltarrok batuta, Aberriari diogun maitasuna kaleetan isladatzea, abertzaleon elkartasunaren eredu izan eta nork daki, garai hartan Kurtzebarriin piztutako su garra berriro ere Euskal Herri osora zabaltzea.

Hau guztia, amets bat besterik ez? Agian bai, baina errealitate bihurtzen ez dugun bitartean, nik amesten jarraituko dut, eta pentsatzen, ea nola lortuko dugun gure Euskal Herri honen burujabetasuna, urtean behin abertzale guztiok elkartzeko gai ez garenean.



Lore MARTINEZ AXPE



- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 943 77 03 08

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tfnoa: 943 79 57 47
Aretxabaleta

HAURRAK
Umeendako
moda

Lezama merkatal
zentrua, 15
ARETXABAleta



Gaur egun talde guztietan jendea falta da, bai batzordeetan parte hartzeko, bai antolatutako ekintzetan parte hartzeko

2000. urteak zer ote dakar?

2000. urtea hasi da eta agenda berriarekin batera urteko proiektu berriak datoz. Norberak dituen asmoez gain, herriko elkarte eta taldeek ere badituzte eurenak, gehientsuenak iazko antzekoak, baina baita berriak ere.

Zer egingo duten ezagutzeko hainbat taldetako lehendakari eta arduradunekin egon gara, hona hemen esandakoa.

Basotxo

“Orokorrean arrakasta handia dute aktibitate guztiek, partehartze txiki-na hitzaldietan izaten da”

Urtero legez, aurten ere hainbat ekintza egingo ditugu hirugarren adinekoentzat Basotxotik. Dibertimen-

duzko aktibitateetan lehiaketa gastronomikoa, martxa neurtua, lau hilabetetik behin egiten dena, eta gabonetako opariak eta errifak egongo lirakeke.

Kultur ekintzen barruan, Arantzazura urtero egiten den bisitaz gain, museoak bisitatzeko asmoa ere bada, Guggenheim eta Arte

Ederretakoa. Kantabriara, Covadongako Ama bisitatzera joatea ere gustatuko litzaiguke.

Prebentzioko ekintzak ere egiten ditugu. Batetik, hitzaldiak izango dira eta bestetik, gimnasia kiroletxean. Nahi duenarentzat ikastarok ere egongo dira eskulak, pintura...

Bukatzeo bidaiak aipatzea nahi nuke, urtero egiten baititugu hirubat. Uda berrian, kostaldera, udan Kantabria aldera eta baita Errioxara ere. Orokorrean arrakasta handia dute aktibitate guztiek, partehartze txiki-na hitzaldietan izaten da, nahiz eta gaien arabera egon sarritan.



“Egoera behartsuan dauden 120 familiei esnea emango dien bufala bana ematean datza”

Hirugarren munduari laguntzeko sortutako Hiruatx taldeak bosgarren proiektuari ekin zion 1999an, “Unai-2 erreboluzio zuria” hain zuzen. Hau aurrera eramatea izango da gure helburu nagusia aurten. Proiektu hau, Indiako Adivasi-ekin eta Inazio Galdosen bitartez aurrera eraman nahi dugu eta egoera behartsuan dauden 120 familiei esnea emango dien bufala bana ematean datza.

8.500.000 pezetako aurrekontuaren barruan mendian ibiltzeko Jeep bat ere sartzten da, 30 Km.tako erradioan banaturik bizi diren familiei laguntzeko beharrezkoa baita. Diru sarrerak egiteko, ohizkoa den legez, Euskadiko Kutxa eta Kutxan kontuak zabaldu ditugu. Hiruatxen bitartez laguntza eman duzuenok bestalde, NAN zenbakia eman behar diguzue, Murubide 5eko buzoian utziz, honela zuen diru-ekarpenak desgrabatu ahal izan ditzazuen.



Atxabalta telebista. Eskualde mailan sortzen ari den komunikabide proiektuan parte hartzea nahi genuke. Telebista, herriko nortasuna galdu gabe, proiektu berri honetara egokitzea izango litzateke helburua. Honela, herriko informazio osatua izango dugu eta kalitatean asko hobetuko da.

Aretxagazeta

Aretxagazeta. 2000. urterako erronka garrantzitsua dugu, kalitatean hobetzea. Maketazio aldatetarekin itxura berri eta modernoagoa eman nahi izan diogu aldizkariari. Ez bakarrik itxuran, edukinetan ere hobetu nahi dugu eta horretarako

rako urte osoa daukagu.

Era berean herritarren partehartzea eskatu nahi dugu. Partehartzea bai lehiaketa eta inkestak erantzunez, bai kolaborazioko lanak eginez.



“Gure ustez, Loramendi Euskara Elkartearen eginkizuna Atxabaltako herriari bizitasuna ematea da”

Mende amaiera honetan eta milurteko berriaren sarrean, hizkuntza eta orohar kultura alorrean ematen ari den globalizazio joera ikusita, erronka gogorra izango du herrigintzan diharduen orok. Gure ustez, Loramendi Euskara Elkartearen eginkizuna Atxabaltako herriari bizitasuna ematea da. Gure hizkuntza eta izaera eguneroko balizko tresna dela

sinistaraztea. Horretarako hainbat arlotan banatu da herriko elkarte honen lana; gaztetxoek herriko ludoteka dute zabalik (eta beteta), bere jarraipen taldearekin. Kultura arloa izango da esparru garrantzitsua, urtean zeharreko kultur ekintza, ikastaro, hitzaldi, erakusketa, jaiak, etabarrek osatzen digute. Ahalegin berezi bat egingo da herriko elkarte ezberdinekin eta baita komertzioekin ere, hitzarmengintzaren bitartez. Milurteko hastapen honetan lehenasuna eman nahi diogu elkartearen barne formakuntzari, aurrerantzean eta etengabe herriari bizitasuna gal ez dadin.



Futbol taldea. Liga maiatzean bukatuko da eta postu egokian bukatzea gustatuko litzaiguke. Horixe izango da 2000. urterako gure helburu nagusia.

Txirrindulari taldea. Iaz egindako ekintza berdinak antolatuko ditugu. Maiatzekaina inguruan, Pedro Gueñetxea Memoriala egingo

“Loramendi Euskara Elkartearen eginkizuna Atxabaltako herriari bizitasuna ematea da”



da 2. mailako kadeteentzat. Udaberrian, gaztetxoentzat antolatzen den haur txirringulari festak ere arrakasta handia izan du azken urteetan beraz, horrela jarraitzea gustatuko litzaiguke. Ondoren, Andramaixetako lasterketa dator eta bukatzeko, jubenilen lasterketa San Migueletako ospakizunen barruan.

Pilota taldea. Gure helburu nagusia astero partidu bat jokatzeko aukera izatea da. Partiduak jokatu gabe entrenamenduetan aritzea oso gogorra da, beraz, hainbat txapelketetan parte hartuko dugu. Federatu gabeko mutiko gazteek, eskolarteko txapelketa jokatzeko dute urtarrila eta ekaina bitartean. Hemen sailkatutakoek ondoren, beste eskualde batzuetako eskoletako pilotariek indarrak neurtzeko aukera izango dute.

Federatutakoek hainbat txapelketa izango dituzte. Batetik, Kluben arteko txapelketari bukaera emango zaio otsailean. Bestetik, kadete, jubenil eta senior mailako gazteek, Deba Arroako txapelketari emango diote hasiera urtarrilean. Herri arteko txapelketara ere joango gara eta azkenik, beste klub batzuek antolatutako txapelketak daude, Zaramagakoa, Santa Luziakoa...



"Antolatutako ekintzek izaten duten erantzuna hain txikia izanda, alperriko lanik ez egitearen aldekoak gara"

Aurtengo urterako Murruxio Mendizale Elkartean asmoa oso xumea da. Derri gorrez egin beharreko ekintzak egingo ditugu: Federatu txartelen tramitea

egin, piraguismoko federatu txartelak egin, Kurtzebarriko eguna antolatu, materialaren erabilpena erreztu eta Leixargarateko aterpearen erabilpena mantendu.


Honez gain, gure eskuetan dauden beste hainbat ekintza egin nahi genituzke, trabesiako eski irteeraren bat, Gorrina lasterketa antolatu, diapositiba emanaldiaren bat...

Batzordean jende gutxi gaude eta antolatutako ekintzek izaten duten erantzuna hain txikia izanda, alperriko lanik ez egitearen aldekoak gara.

Aurtengo urtea erabakiorra izan daiteke Murruxio-aren etorkizunarentzat. Norbaitek, zerbait gaizki egiten ari garela, edo ekintza ezberdinak antolatu beharko genituzkeela edo ideia berriak dituela edo gauzak antolatzeko gogoia badu asteartero 7,30etan ditugu batzarrak. Telefonoz ere dei egin dezake 943 79 93 74 zenbakira.



"Ekainaren 4an, berriz,



"Ekainaren 4an ospakizun berezia daukagu, Muruko gurutzearen 50. urteurrena hain zuzen"

ospakizun berezia daukagu, Muruko gurutzearen 50. urteurrena hain zuzen" Jadanik 10 urte pasatu dira Zaraia Mendizale Taldeak, UDATik banandu eta bere ibilbideari ekin ziola. 2000. urte honetan ere aste bukaerero irteerak egiteko asmoa dugu. Aurten, Gipuzkoako bira amaitzea espero dugu, bi edo hiru etapa besterik ez baitzaigu falta. Ondoren Bizkaiako birari ekingo diogu.

Ekainaren 4an, berriz, ospakizun berezia daukagu, Muruko gurutzearen 50. urteurrena hain zuzen. Argazkiz osatutako esku-orri bat atera nahi dugu eta egun horretan meza, luntxa, trikitilariak eta beste hainbat ekintza izango dira Muruko tontorrean. Mariano Oterori omenalditxo ere egingo diogu, bera izan baitzen gurutzearen jartzearen aldeko bat.

Honez gain, betiko ekin-tzekin jarraituko dugu, Aste Santuan irteera berezia, argazki rallya... Norbaitek ezer esateko baleuka 943 79 03 34 telefono zenbakian aurki gaitzake.

Arlutz Xake Taldea

"Xakea gazteei erakutsi eta ea talde berriren bat sortzen den"

Xake taldekook, xakea eskolatan zabaltzea nahi genuke 2000. urte honetan. Xakea gazteei erakutsi eta ea talde berriren bat sortzen den. Lehen ere egin genuen antzeko zerbait eta orduan talde bat sortu zen.

Talde nagusia Euskal Ligan ari gara jokatzeko eta hor mantentzea izango da gure helburua, nahiz eta zaila izan. Gazteak, berriz, Gipuzkoako 2. mailan daude.



Murrukixoko mendi elkarteak 500 bat bazkide ditu eta 200etik gora federatu

Murrukixok, bazkideei deia

Bailaran dauden gainontzeko taldeetan gertatzen den antzeko arazoa gertatzen da Murrukixoko mendi elkartearen ere. Hemen ere, musutruk lan egiteko borondatezko jendea behar da.

Oier Etxebarria elkartearen lehendakariaren esanetan, "jendeak ez du konpromezurako gogorik eta bakoitzak bere aldetik jotzen du". Antza denez, denbora faltari botatzen diote gehienek arrazoia, "gazteek dibertitzeko denbora behar dutela diote eta helduek denborarik ez dutela". Honen aurrean Oierrek ondorengo erreflexiora eraman nahi gaitu: "eguneko 24

orduei fruitua ateratzen diegu?" Bere ustetan ez. Gainera herritarrentzat ekintzak antolatuta ere, jendeak oso gutxi partehartzen duela garbi du mendi taldeko lehendakariak. Hau ikusita, honako hau galde daiteke: benetan jendea mendian badabil? Galdera bota ondoren bakoitzak pentsa dezala nahi duena. Badirudi baietz, kontuan hartu behar da, Murrukixok 500 bazkide inguru dituela eta 200etik gora federatu.

Jende bila

Ekintzak antolatzeko eta lan egiteko prest dagoen jendea behar du Murrukixok.

Beste era batera esanda, ilusioz, borondatez eta gogoz mendiarekin lotutako arlo desberdinetan arituko den jendea. Hala ere, lan guztia ez dute berrientzat utzi nahi. Izan ere, "gaur egun batzordean gaudenok aktibitate batzuk mantentzeko prest gaude: Gorriña, Kurtzebarri eguna, piraguismoa, trabe-siako eskia, diapositiba proiektzioak..."

Beraz, aurrean adierazi den honekin identifikaturik sentitzen denak eta bere kolaborazioa eskaini nahi duenak, Murrukixotik pasatu besterik ez du martizenetan 7,30etatik aurrera.

■ LIGAKO LEHEN BUELTA AMAITUTA

UDAKo preferenteak garaipenez amaitu zuen ligako lehen buelta. Azken partidua honekin gol ugari sartu zituzten Ceciagaren mutilek, Beti Ona taldearen aurka 5-1eko emaitza nagusitu baitziren. Beraz, gabon osteko lehen partiduan garaipen politaz gozatzeko aukera izan zuten Ibarra futbol zelaian batu ziren zaletuek.

Lehen erregionalak, ostera, ez zuen zorte bera izan, Allerruren aurka 7-0 etxetik kanpo galdu zuten. Euskal Ligako jubenilek binako berdinketaz konformatu behar izan zuten etxean Marianista taldearen aurka. Lehen mailako jubenilek ere berdinketa lortu zuen: Ondarroa 1, UDA 1. Lehen kadeteen partiduari dagokionez, hemen gol ugari izan zen. Azken hauek Bergararen aurka jokatu zuten eta emaitza 9-0 izan zen UDAREN alde. Azkenik, infantilek 1-4 galdu zuten Aizkorri taldearen aurka. Talde hauez gain, 2. mailako jubenilak eta 2. mailako kadeteek amaitu dute liga eta aste honetan kopa jokatzen hasiko dira.



Herriko
plazan
ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 943 79 23 53



Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 • 79 38 59

ARETXABAETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53
ARETXABAETA



Pilota

Club arteko pilota txapelketa Club arteko pilota txapelketak ez du fruitu onik ekarri herriko pilotarientzat. Bigarren mailako kadeteek ezik, gainontzekoek bukatu dute txapelketa eta Errasti anaiak izan dira final aurrekoetara iritsi diren bakarrak. Dena dela, azken hauek ezin izan zuten Intxaurren gainditu final aurrekoan. Kadeteek, berriz, partidu bakarra gelditzen zaien arren, ez dute sailkatzerik lortu. Urtarrila bukaeran, bestalde, Deba Arroako torneo hasiko da.



Squash

Squash txapelketan zornotzarra nagusi

Eduardo Gallastegi zornotzarra izan zen nagusi gabonak aurretik jokatu zen squash txapelketan. Bigarren, Alex Etxebarria Lezamakoa gelditu zen, hirugarrena, Juan Antonio Varilla atxabaltarra eta laugarren, Jose Gorosabel arrasatearra. Guztira 18 lagun apuntatu ziren txapelketara, horien artean gehienak kanpotarrak. Oraingoan kanpotarrek nagusitasuna lortu zuten etxekoan aurrean.



Futbola

Manolo taldea irabazle Peña Zubin

Urtero moduan gabonetan Peña Zubi torneo jokatu zen Ibarra futbol zelaian. Bertan, Aretxabaletako Manolo K.B. taldea izan genuen irabazle. Honen atzetik, Bizkorak, Canas Esteban, Koba haundi, Mapfre eta Leze txiki talde arrasatearrak sailkatu ziren. Ondoren, D.K., L.P.E. eta Pata Carlos talde atxabaltarrak eta azkenik, Arrasateko Kimel taberna. Talde guztiek trofeo bana jaso zuten.



Xakea

Arlutz A laugarren postuan Arlutz A xake taldekoek bi partidu jokatu dituzte gabonetan. Lehena Durangoko Larrasoloetaren aurka 2'5 emaitzaz irabazi zuten. Bigarrena, berriz, Beraun-Bera Oreretako taldearen aurka 1'5eko emaitzaz bukatu zen. Modu honetan Euskal ligako klasifikazioan laugarren postuan kokatu da talde atxabaltarra. Hurrengo ihardunaldian lehen postuan dagoen Zuri-baltza talde bilbotarra izango dute aurrez-aurre.

Valentin Zurbano taichiko irakaslea eta gimnasiako maixua da. Taichia aspalditik ematen du Arrasaten eta bailara oso-tik hurbiltzen da jendea bere klaseetara. Gaurkoan gimnasia mota hau gertuagotik ezagutzeko aukera izan dugu eskoriatzar honen eskutik.

■ **Gimnasiako maixu eta taichiko irakasle bezala, zein desberdintasun daude bien artean?**

■ Mendebaldean gimnasia egitean gorputza estresatu egiten da, eta berriz, taichian tentsioa kentzea da garrantzitsua, muskulo, artikulazio eta ligamentuetan erlajazioa sortuz.

■ **Beraz, gimnasia bien helburua antzekoa bada ere, hau da osasuna lortzea lantzeko moduan dago ezberdintasun haundiena.**

■ Bai, hala da. Ekialdeko kulturaren muskulua poliki-poliki eta estresatu barik lantzen den bitartean, mendebaldean estresatu egiten da.

■ **Muskulo, artikulazio, etabarrez gain, zein beste arlo lantzen du taichiak?**

■ Kontzentrazio eta atentzioa ere lantzen dira tai-

chian, eta honek, norbere burua hobeto ezagutarazten laguntzen du. Modu honetan, pertsonok besteen aurrean nola jokatzeko dugun jabetzen gara.

■ **Emozioak aipatu dituzu. Zein eragin du taichiak hauengan?**

■ Normalean pertsonok emozioa gertatu aurretik edo ondoren jokatzeko dugu. Taichiak arreta eta kontzientzia lantzen laguntzen du eta horren eraginez gure emozioen kontrol haundia izango dugu. Bide batez, gure gorputza hobeto ezagutzen lagunduko digu.

■ **Adin konkretu bateko pertsonen zuzenduta dago?**

■ Ariketa leunak direnez, adin eta ezaugarri guztietako pertsonen praktika dezaketen kirola da.

■ **Yogarekin zein desberdintasun du?**

■ Desberdintasun haundiena praktikan dago. Yogan postura estatikoak egiten dira eta denbora batez man-

Valentin Zurbano

Taichiko irakaslea

tentzen dira. Taichian postura estatikoez gain, postura dinamikoak ere badira. Horrez gain, yoga bakarka lantzen da, eta taichian, berriz, binakako ariketak ere egiten dira.

■ **Konpetentziarik existitzen du taichian?**

■ Ez, inolaz ere. Taichiko printzipiorik nagusia kooperazioa da.


■ **Zein da ariketa hauen helburu nagusia?**

■ Pertsona aspektu guztietan lantzean datza helburu nagusia, alderdi fisiko eta psikologikoa, emozioak...

■ **Arte martzialek badute antzekotasunik taichiarekin?**

■ Bere jatorrian taichiko ariketak arte martzialak ziren, baina gaur egun hori bigarren plano batean gelditu da. Gaur egun barruko eskolak eta kanpoko eskolak daude. Kanpokoan judoa, karatea... daude. Barruko eskoletan, berriz, garrantzia pertsonaren barruari ematen zaio,

hau da osasunari, emozioei... Esan beharra dago, arte martzialak gaur egun gero eta indar gutxiago dutela. Horren arrazoiak garbia da, gaur egungo gizarteak gero eta biolentzia eta agresibitate gutxiago nahi du, eta horregatik, arte karatea eta judoa bezalako arte martzialek beheranzko joera hartu dute.



Denetik

Nintendo 64 salgai. Honez gain, mandoa eta hiruro joku ditu: Super Mario 64, Goldeneye eta V-Rally 99. Prezioa 18.000 pzta. Tfnoa: 943 79 88 53, Mikel.

Boxer arrazako txakurkumea salgai. Pedigriarekin. Tfnoa: 696 057 346.

"Spaniel breton" arrazako 3 hilabeteko 2 txakur salgai. Tfnoa: 943 79 19 63.

Aretxabaletako kale batean boligrafo dotorea topatu da. Tfnoa: 943 79 73 84, gaueko 8etatik aurrera deitu.

7tik 11 urte bitarteko ume batentzako mountain bike bizikleta salgai. Prezioa, 15.000 pzta. Tfnoa: 943 77 03 98.

Rossignol markako snow board tabla salgai, fijazio eta guzti. 1,34 neurrikoa, 10-15 urte bitarteko gaztearentzat. Tfnoa: 616 286 842, gaueko 8etatik aurrera deitu.

Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 71 49 15, gaueko 9etatik aurrera.

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.

Etxebizitza

Aretxabaleta edo Arrasaten langile batek gela bat behar du bizitzeko. Tfnoa: 607 798 723.

Garajea salgai Andra Mari auzunean. Plaza bakarra du. Prezioa: 2.300.000 pzta. Tfnoa: 943 77 02 27. 57 m²ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.

Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.

Etxea erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 61 68.

Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 61 68.

Etxea salgai Aretxabaletan. 72 m², zentrikoa eta berritua. Garajea aukeran. Tfnoa: 943 77 02 27.

Txakurra eramateko erremolke berri berria salgai. Deitu 943 77 05 75 telefonora.

Kanpindenda kanadiensea eta kotxe gainean eramateko PVCzko kaxa salgai. Tfnoa: 943 79 23 69.

Urrezko zintzilikarioa galdu da. Inork aurkituko balu 943 77 17 42 telefonora deitu.

Kawasaki GPC 400 salgai, egoera onean. Tfnoak: 943 73 18 72 edo 73 12 82.

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	943 79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	943 79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	943 79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	943 79 31 59
• LEINTZ-ROSI	943 79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	943 79 96 43

Lana

Estetizista behar da.
Tfnoa: 943 79 94 39.

Gaztea behar da tabernan
orduka lan egiteko.
Ikasleentzat lan egokia.
Tfnoa: 656 721 482.

5. OHOk ome bati klase
partikularrak emateko
pertsonek behar da.
Tfnoa: 943 77 02 92.

Neska prest zapatu eta
domeketan lan egiteko.
Tfnoa: 943 79 03 37.

Ingeleseko klase partikula-
rrak ematen dira. Maila
guztiak.
Tfnoa: 943 77 08 69.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

**Arabako lautadan kokatutako enpresa batek
kalitate kontrolerako teknikaria behar du.**

Erref: 27631/2

**Gernika-Bermeon kokatutako enpresak
sukaldaria behar du.**

Erref: 27610/1

**Tolosako enpresarako CNC tornularia behar
da.**

Erref: 27570/1

**Bilboko enpresa baterako dietetika produk-
tuak banatzeko komertziala behar da.**

Erref: 27492/4

**Tolosako enpresarako kalitate arduraduna-
ren laguntzailea behar da.**

Erref: 27571/1

Mitartegarai
Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51
Jatetxea



Haizea

Zure gustoko
giroaMitarte z/g
ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 85 57

Urkiola

Bataioak
Jaunartzeak
EzkontzakAlbunak
Argazki kamarak
Markoak...Herriko plaza, 5-behea
Ti.: 943 79 39 20EXPRESS
AKEITEGIASanta Kurtz, 16
Tfnoa: 943 79 23 43T
X
i
L
A
R
R
AELIKADURA
BEREZIADurana, 35
Tfnoa: 943 79 10 15Loramendi, 9
Tfnoa: 943 79 44 28
ARETXABALETA

Arenaza altzariak komertzioa, eskaparate lehiaketako lehen saritua izan dugu. Berau apaintzen Anton Diez ugazaba aritu da. Trebea da Anton eskaparateak janzten, horren erakusgarri da orain bost urte beste lehen sari bat irabazi izana.

Anton Diez

"Gastu txikienarekin eskaparatea txukun uzten saiatzen naiz"



- **Zorionak lehendabizi. Espero zenuten sari hau?**
- Herria eta gabonak alaitzearren jartzen dugu eskaparatea. Hasiera batean gure asmoa ez da saria irabaztea izaten. Dena dela, sariak beti ongi etorriak dira.
- **Urtero apaintzen duzu eskaparatea gabonetan?**
- Bai, urtero urtero.
- **Zeuk bakarrik apaintzen duzu?**
- Bai, emaztearen laguntzaz.
- **Ideiak nondik hartzen dituzu?**
- Etorri egiten zaizkit. Gaur gauza bat pentsatzen dut eta bihar agian beste bat. Han eta hemen ibiliaz ere asko ikasten da.
- **Sekreturik baduzu?**
- Ez, gutxi gastatzea eta txukun gelditzea da hemen sekretu bakarra.
- **Noiz hasten zara eskaparatea ipintzen?**
- Inmakuladako zubia erabiltzen dugu, bestela ez dugu denborarik.
- **Noiztik Arenaza altzari dendan?**
- Hemeretzi urte daramatzagu.
- **Nola hasi zinen?**
- Lehen lantegi batean lan egiten nuen, hura itxi zenean, errentan hartu nuen denda.

- **Altzari moderno ala klasikoak gustatzen zaizkizu?**
- Niretzat modernoak. Klasikoak ikusteko gustatzen zaizkit baina lan egiteko modernoak gehiago.
- **Nolakoak izango dira milurte honetako altzariak?**
- Nik uste dut berrikuntza handirik ez dela egongo, nahiz eta beti egoten diren aldaketak.
- **Zein da zure lana dendan?**
- Proiektuak egin, neurriak hartu, aholkularitza lana eta denetik apur bat.
- **Denbora librean zer egiten duzu?**
- Ez daukat denbora libre gehiegi. Gehiago izanez gero, eskulanak egingo nituzke.
- **Kalkuluak, eskuz ala kalkuladoraz?**
- Kalkuladoraz.
- **Urtarrileko aldapa igartzen da dendan?**
- Agian zeozer igarriko da, baina altzarietan nik uste dut ez dela igartzen.
- **Bainujantzia ala berokia?**
- Bainujantzia.
- **Zinea, antzerkia, opera...**
- Den-denak gustatzen zaizkit.
- **Asteburu bat pasatzera nora?**
- Parisera.

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.
 ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABAETA

Zuzendaria:

Lyonel
Arquero

Dekorazioa:

Soraya
Arquero



Mitarte 9 • Aretxabaeta • Tfnoa: 943 79 92 01



Milurte berriaz new look

Pasa dira 2000. urteko lehenengo egunak eta aizu! niri behintzat ezin esan ditxosozko efektu horrek kalte egin didanik. Sekula baino ederrago ez al nago ba?.

Benetan eder-eder dagoe-na **Joseba Iñaki Saez-Azkunaga** da, bera izan zen 2000. urtean jaiotako lehen atxabaltarra. Bere gurasoek, Cati eta Iñakik, ospitalean hasi zuten urte berria, haurra goizeko 4retan jaio baitzen.

Urtea ondo baino hobeto **Edurne Iturbek**, musika eskolako trikiti irakasleak, hasi zuen. Edurnek, Oihana Irastortza panderojole lagun zuela, Tolosako Leidor aretoan egindako EITB trikiti saria irabazi zuen. Zorionak, beraz, bi neska gazte hauei.

Zorionak merezi dituen beste bat **Fran Miguel** xake jokalaria atxabaltarra da. Franek pasa den gabonetan ospatutako Gipuzkoako xake txapelketan 3. saria eskuratu zuen.

2000. urtea iritsi eta oraindik inongo aldaketarik nabarmendu ez dutenak Euskal Herritik urrun dauden preso politikoak dira. Hauen alde, pasa den gabonetan Arrasateko Uarkape udal pilotalekuan egindako gose greban bost atxabaltarrak hartu zuten parte. **Axu Cardenal**, **Asier Zubia**,


Iñaki San Miguel, **Unai Uralde** eta **Markos Korres** izan ziren baraualdia egin zutenak. Batzuk larri samar ibili ziren, gripearen birusa inguruan ibili zen eta.

Jende gutxi geldituko da aurtengo neguan gripearen atzaparretan erori barik. Nik neuk ere ohean egon behar izan nuen hiru egunetan zehar. Termometroa jarri eta 39 markatu, hotz ikara izugarriak, katarroa, burukomina, hura zen infernua hura.

Zorionez dena pasatu da eta medikuek esaten dutenari jarraiki, behin pasatu dugunok, aurten ez dugu ostera harrapatuko. Eskerrak!

Beno eta gaiz aldatuz, notizi pozgarri bat heldu da nire belarrietara. Gehiago Leixargarateko txabolara joango ez nintzela pentsatzen nuen, Iñaki Etxebarriak txabolako ardura utzi eta beste inork hartuko ez zuelakoan. Baina guztion pozerako badago txabolari jarraipena emango dionik. Horren ardura hartuko du hemendik aurrera **Imanol Etxabek**. Eskerrak borondatetzko lanetan aritzeko norbait badagoen oraindik ere.

Musutruk lan egitearen gai hori ez da gero txantxetako gaia bihurtu. Milurte berri honetan gure elkarteek jarraituko al dute? Mila galdera egingo nizkioke neure buruari. Buruan chip-ak izango ditugula ere entzundut eta hobe gaurkoan pentsatzen jarraitzen badut.



Ahatea

Marrazkiak: Gerald Hawksley
Susaeta (Ur gainean! Saila)

Haur txikiendako jostailu liburua duzue honako hau, bainua hartu bitartean jolasteko aproposa. Haurrak liburuekin lehen kontaktua izateko liburu polita da, ahate puzgarriarekin jolasten duen bitartean orrialdeak pasatzen eta marrazkiekin gozatzen ikasiko baitu. Bertan, ahate bat, bi sorginorraz, hiru arrain, lau barraskilo eta bost igel ere agertzen dira. Balea eta Igela liburuak ere sail berdinean aurkituko dituzue.

LIBURU IRAKURRIENAK

- "Hau da ene ondasun guztia" Joseba Sarrionandia
- "Ama" Arantxa Iturbe
- "Sinonimoen hiztegia-antonimoduna"
- "Enaz banaz" Xabier Amuriza
- "Bai... baina ez" Laura Mintegi
- "Gertutik daukagu odola" Joxean Sagastizabal
- "Su etenaren apustua" Pello Urzelai
- "Luna lunera" Rosa Regás
- "La boda del poeta" Antonio Skármeta
- "Ella maldita calma" Manuel Rivas
- "Hannibal" Thomas Harris
- "Mi siglo" Günter Grass
- "Todo un hombre" Tom Wolfe
- "El egoista" Nativel Preciado
- "La rosa de plata" Soledad Puértolas
- "Madera de Boj" Camilo José Cela
- "Carlota Fainberg" Antonio Muñoz Molino
- "Son de mar" Manuel Vicent
- "Pasiones" Rosa Montero
- "El cuento largo" Günter Grass
- "Corazón de Ulises" Javier Reverte
- "Sacra Némesis" Jon Juaristi
- "El cerco de Ispahán" Jean-Christopher Rufin
- "Testigo de esperanza, bibliografía de Juan Pablo II"

URTARRILA

15 ZAPATUA

■ TAKOLO, PIRRIKX ETA PORROTX PAILAZOAK

Plisti Plasta antezlan berria eskeiniko dute kiroltxean arratsaldeko 5etan. Sarrerak aurrez erosiz gero 300 pzta., bertan 500 pzta.

17 ASTELEHENA
ETA 18 MARTIZENA

■ TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON ARRASATEN

Barre busa antezlana aurkeztuaz, Arrasateko Amaia Antzokian izango dira arratsaldeko 7etan Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak. Sarrerak Aretxabaletako Ludotekan eskura daitezke arratsaldeko 5etatik 8ak bitartean.

18 MARTIZENA

■ BIDEZKO MERKATARITZARI BURUZKO HITZALDIA

Parrokiako Sendotzako Gazteek osatutako Misio Taldeak eta Hiruatxek, Bidezko Merkataritzaren inguruko hitzaldia antolatu dute. Gipuzkoako Karitaseko Ibon Narbaiza izango da hizlari, udaletxe zaharretako aretoan arratsaldeko 7,30etan.

20 EGUENA

■ LORAMENDI LITERATUR LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Arratsaldeko 7etan izango da Loramendiko lokalean.

22 ZAPATUA ETA
23 DOMEKA

■ BIDEZKO MERKATARITZA KANPAINA

Bidezko Merkataritzaren inguruko sentsibilizazio kanpainaren barruan, produktuen salmenta burutuko da. Udaletxe zaharretako atarretan izango da, goizean 11etatik ordu bata eta erdiak bitartean eta arratsaldean 6 eta erdietatik 9ak bitartean.

LEHIAKETAK

■ XIII. ARRASATE LEHIAKETAK

Arrasate eta bere inguruetako komikigintza, euskalkia, ikus-entzunezkoen gidoigintza eta eskualdeko euskal idazleen ekintza sustatzeko asmoz eta helburuz, AED Elkartek, Arrasateko Udalaren laguntzarekin, XIII. Arrasate Literatur Lehiaketa antolatu du. Sei aukera daude: komikia, Leintz eta Ugaran bailareta-ko euskararen egindako magnetofoi-grabazioak, irratierreportajea, ipuina, poesia eta bertso-paperak. Lan guztiak, 2000ko otsailaren 11 baino lehen AED Elkartera bidali behar dira: AED Elkartea XIII. Arrasate Lehiaketak Pablo Uranga kalea, 4 behe 20.500 Arrasate

BALITZAKUK

(Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxa gazeta

Zorionak



Iker Hernandez
Urtarrilaren
7an, 4 urte.
Zorionak!



Oier Etxebarria
Urtarrilaren
12an, 28 urte.
Zorionak!



Amagoia Jimenez
Urtarrilaren
14an, 4 urte.
Zorionak etxe-
koen partez.



Eider Iturbe
Urtarrilaren
15ean, 23 urte.
Zorionak la-
gunen partez.

Zorion agurrik argitaratu nahi baduzue, Aretxagazetara zuzendu, Durana, 11 edo 151 postakutxatilara bidali.

Txistuak • Txaloak

Sarritan arazo eta salaketa ekologikoak, gure erreketara botatako hondakinetara mugatzen dira, holako isurketa halako kolorea erreka urek. Bada denboralditxo bat ordea, gure herria hodei zuri trinko baten mehatxupean dagoela. Ez dakigu osasunarentzat kaltegarria izango den edo ez, baina dena delako enpresak hauts zurizko hodeia jaurtitzen duenean ez da batere atsegina trenbidean pasiatzea.

Txistu bizi bat isurketa hauen erantzuleei eta baita herriarrak hauengandik babestea tokatzen zaienei ere. Lantegiko arazoak ez dira ingurugiroa erasotzeko aitzakia.



Aretxatelebista

20:00

martizena

ALBISTEAK
Agenda
Argazki-zaharrak
Kirolak

20:30

Albiste errepikapena

21:00

Albiste errepikapena

egukotxa

ALBISTEAK
Agenda
Eguraldia

Atxabalta ezagutzen

Albiste errepikapena

Jaiotakoak

■ **Joseba Iñaki Saez-Azkunaga Fabian.**
Urtarrilaren 1ean.

■ **Iraide Otxoa Barandiaran.**
Urtarrilaren 6an.

Hildakoak

■ **Esperanza Altube Arrazkarate.** 94 urte.
Urtarrilaren 5 ean.

■ **Klaudio Arriola Zugasti.**
68 urte.
Urtarrilaren 7 an, Mendiolan.

■ **Melchor Unanue Makazaga.** 81 urte.
Urtarrilaren 9an, Apotza-
Etxebarrin.

■ **Teresa Lete Aldai.**
64 urte.
Urtarrilaren 10ean, Arkarazon.

Okerrak zuzentzen:

1999ko azkenengo alean, urtekarrian, Felix Iglesias Sofia Perezekin ezkondu zela jarri genuen. Ez da horrela, beraz, barkatu hutsegitea.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxe	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Atxabaltako kuadrila famosa

Ah ze kuadrila! 38-39 urteko kintoak dira, gaur egun 80-81 urte dituztenak. "La famosa cuadrilla de Aretxabaleta" esaten omen zioten. Zergatik ote? Hemen bost bakarrik agertzen badira ere hainbat "fenomeno" falta da, kuadrila haundia baitzi-

ren. Parrandan ibiltzeaz gain, abestea ere gogoko zuten eta euren esanetan ez omen zuten batere gaizki egiten!

Argazkia Etxabenero fonduan ateratakoa da eta 58 bat urte izango ditu.

Atzean: Mariano Otero,

Santiago Lonbide.

Aurrean: Francisco Oyanguren, Laureano, Bittor Jauregi.

*Argazkia eta informazioa:
Santiago Lonbide*



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13



Plastikozko ontziak



Latak



brickak



...zure esku dago

"Buertaka - Buertaka Birziklatuz"

Datozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Deba Garaian zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

Eta horrela, lehengai eta energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zabortegiak ere denbora luzegorako izango ditugu.

Gutxitu hondakinak, berriz erabili eta birzikla itzazu

Guztion mesedetan izango da



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Nekazaritza eta Ingurugiro Departamntua
Departamento de Agricultura y Medio Ambiente



ETXE MODEL
MUEBLES ALTZARIARI

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



RKUZ
ALTZARIARI

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTROGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



RKUZ
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik